



**Egile-eskubideen  
oinarrizko alderdiak**

## 1. Egile-eskubideen oinarrizko alderdiak

Egile-eskubideak obra bat sortu duen pertsonari legeak ematen dizkion eskubideak dira. Filmak, antzezlanak, musika, liburuak, komikiak edo artelanak ez dira egilerik gabe sortzen. Egile-eskubideek obra bat sortzen duenari bere lanari buruz erabakitze eskubide eskusiboa ematen diote: bere sorkuntza-lanaren emaitza dira.

Egileak erabaki dezake bere obrarekin zer egin, hots, baimena ematen duen hirugarrenek bere obra erabil dezaten, komertzialki ustiatu nahi duen ala ez, ezagutarazi nahi duen ala ez, baita trukean zer ordainsari eskuratu nahi duen ere. Beren obra hirugarrenei erabiltzeko baimena emanaz jasotzen dituzte egileek diru-sarrerak. Egile-eskubideak behar-beharrezko baldintza dira lan sortzaitetik bizi ahal izateko eta eduki berriak sortu ahal izateko.

## 2. Zer babesten dute egile-eskubideek?

Egile-eskubideen babesaren xedea obra idatzi, ahozko edo artistiko bat da, lan sortzaile originalaren emaitza dena. Egile-eskubideek obra baten itxura eta adierazpen-modua babesten dituzte. Obra baten erabilera aurreikusiak edo maila artistikoak ez du axola, ezta obra egiteko erabilitako teknikak edo materialak ere.

Adibidez, egile-eskubidez babestuta daude testu idatziak, pinturak, marrazkiak, filmak, telebista-programak, antzezlanak, konposizioak, mapak, arkitektura-lanak eta programa informatikoak.

## 3. Nola sortzen dira egile-eskubideak?

Egile-eskubideak automatikoki sortzen dira obra bat sortzen den unean. Babestuta egoteko, obra batek originaltasun-atalasea gainditu behar du. Kasuan kasu erabakitzen da originaltasun-atalasea gainditzen duen ala ez. Egile-eskubideek ez dute inolako izapiderik eskatzen, hala nola erregistratzea edo © sinboloa erabiltzea.

## 4. Norentzako sortzen dira egile-eskubideak?

Egile-eskubideak beti sortzen dira obra sortu duen pertsonarentzako. Egilearen adinak ez du garrantzirik; hau da, adingabe bat egilea izan daiteke, Jabetza Intelektualari buruzko Legean aurreikusitakoarekin bat. Egile batek bere egile-eskubideak guztiz edo partez laga diezazkioke, adibidez, ikastegi bati edo argitaletxe bati. Lagapena idatziz adostu behar da. Egile-eskubideak testamentuaren bidez edo ondare gisa ere laga daitezke. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 42. eta 43. artikulua.

Obra baten kopia bat euskarri batean izateak, hala nola liburu bat, film baten DVD-grabazio bat edo koadro bat izateak, ez du esan nahi pertsonak obraren egile-eskubideak ere badituenik. Euskarriaren jabe da, baina ez edukiarena.

### ZER EZ DUTE BABESTEN EGILE-ESKUBIDEEK?

Egile-eskubideek ez dituzte babesten informazio hutsa (datak, datu hutsak, gertaerei buruzko informazioa) edo ideiak. Ideiak askatasun osoz erabil daitezke, betiere adierazpen-modua kopiatzen ez den bitartean.



### NOR DA ESKUBIDEEN TITULARRA?

Eskubideen titularrari dagozkio eskubideak, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen arabera. Eskubideen titularra obra baten egile originala izan daiteke, hala nola idazle bat, testu-liburu baten egile bat, kanta-idazle bat edo konpositore bat, besteak beste.

Eskubideen titularra egileak bere egile-eskubideak laga dizkion pertsona ere izan daiteke, edo argitaletxe bat, ekoiztetxe bat, enpresa bat edo ikastegi bat. Sarritan, bai egileak eta bai editoreak izaten dituzte egile-eskubideak.




## 5. Zenbat denboraz daude indarrean egile-eskubideak?

Egile-eskubideak egilearen bizitza guztian zehar daude indarrean, eta beste 70 edo 80 urte egilea hiltzen den urtearen amaieratik aurrera. Obrak egile bat baino gehiago dituenean, hala nola filmen kasuan, babes-epea hildako azken egilearen heriotza-urtearen amaieratik kalkulatzen da.

## 6. Zer dira eskubide hurkoak?

Jabetza Intelektualari buruzko Legeak egile-eskubideen antzekoak diren eskubide jakin batzuk ere babesten ditu. Horiei eskubide hurkoak deritze. Eskubide hurkoetan sartzen dira: artista interpretatzaile edo exekutatzaileen eskubideak, fonograma- eta zine-ekoizleen eskubideak, datu-base baten fabrikatzailearen sui generis eskubidea, irrati-hedapeneko erakundeen eskubideak, argazki huts bat egiten duenaren eskubideak, besteak beste.

Eskubide hurkoek honako hauek babesten dituzte, adibidez: obra baten aurkezpena, soinu-grabazio bat, irudi-grabazio bat edo argazki huts bat. Halakoak erabili eta kopiatzeko ere eskubideen titularraren baimena behar da. Eskubide hurkoen babesa izateko, ez da beti eskatzen originaltasunaren betekizuna betetzea. Eskubide hurkoen babesaren epea aldatu egiten da kasu bakoitzean. Adibidez, argazki huts bat egiten duenaren eskubideek hogeita bost urteko iraupena izango dute, argazkia egin eta



hurrengo urteko urtarrilaren 1etik hasita. Babestu gabeko obren edizio-ekoizpen jakin batzuen editore-eskubideak (adibidez, jabari publikoko obra baten edizio bat) hogeita bost urte iraungo dute, argitaratu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik hasita. Ikus-entzunezko ekoizleen eskubideek berrogeita hamar urte iraungo dute, lanak egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera. Hala ere, epe horren barruan eta legez zabaltzen bada grabazioa, zabalkundetik berrogeita hamar urtera agortuko dira eskubide horiek, zabalkundearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita.

Bestalde, fonograma-ekoizleen eskubideak grabazioa egin eta berrogeita hamar urte geroago iraungiko dira. Hala ere, denbora-tarte horretan fonograma legezko bide batez argitaratzen bada, legezko lehen argitalpena egin den egunetik hirurogeita hamar urtera amaituko dira eskubideak. Aipatutako denbora-tartean legezko argitalpenik egiten ez bada, baina fonograma legezko bide batez komunikatzen bazaio publikoari, legezko lehen komunikazio publikoa egin den egunetik hirurogeita hamar urtera amaituko dira eskubideak.

## 7. Zer eskubide ditu egileak?

Egile-eskubideak eskubide ekonomiko eta moralez osatuta daude. Egileak eskubide esklusiboak du erabakitzeko bere obraren kopiak egiten diren, obra publikoaren eskura jartzen den edo jendaurrean aurkezten den, edo banatzen edo eraldatzen den. Banaketan sartzen dira, adibidez, obraren kopiak saltzea, mailegatzea eta alokatzea. Eskura jartzea Internetera edo intranetara igotzea da, erabiltzaileak edozein unetan eta edozein tokitatik sartu ahal izan daitezen. Gainera, egileak erabaki dezake bere obra aldatu, beste hizkuntza batera itzuli edo beste literatura- edo arte-genero batean aurkeztu edo adierazi daitekeen, edo beste metodo bat erabiliz.

Egileak guztiz edo partez laga ditzake bere eskubide ekonomikoak. Egileak ezin ditu bere eskubide moralak laga. Egilearenak dira, eskubide ekonomikoak guztiz laga diren kasuan ere.



# Egile-eskubideak

## ESKUBIDE EKONOMIKOAK

Egileak diru-sarrerak lortzeko aukerak babesten dituzte.

## ESKUBIDE MORALAK

Egilearen ohorea babesten dute.

## ERREPRODUKZIOA

Hor sartzen dira, adibidez, inprimatzea, digitalizatzea, fotokopiatzea eta artelanen bestelako erreprodukzioak. Obra baten kopia egitea da bai bolalumaz kopiatzea eta bai materiala eskaneatzea.

## OBRA BATEN KOMUNIKAZIO PUBLIKO ADO PUBLIKOAREN ESKURA JARTZEA

Hor sartzen dira, adibidez, konposizio bat kontzertu batean interpretatzea, zinema-areto batean film bat proiektatzea, testu bat antzeztea edo haren irakurketa dramatizatua egitea, edo argazki bat, liburu bat edo artikulu bat webgune batean zintzilikatzea.

## EGILETASUN-ESKUBIDEA

Egiletasun-eskubide moralari esker, egileak obraren egile-izaera aintzatestea eska dezake. Horrek esan nahi du egilearen izena adierazi behar dela, jardunbide egokiekkin bat, obra bat publikoki erabiltzen denean. Izena aipatu behar da, adibidez, obra bat jendaurrean aurkezten denean edo beste moduren batean publikoaren eskura jartzen denean.

## INTEGRITATERAKO ESKUBIDE MORALA

Horrek esan nahi du obra ezin dela aldatu egilearen berezitasuna edo balio literario edo artistikoa iraintzeko moduan. Halaber, obra ez da modu edo testuinguru iraingarrian jarri behar publikoaren eskura.

## ERALDATZEA

Obra eraldatzearen barruan sartzen da obra itzultzea, egokitzea edo beste edozein modutan aldatzea, hartatik beste obra bat eratortzeko.

## OBRA BATEN ALEAK BANATZEA

Obra baten aleak jendaurrean jartzean, besteak beste, liburu baten edo DVD euskarrian dagoen film baten kopiak egiten dira, erosteko, alokatzeko edo maileguan hartzeko, edo jendeari bestelako aleak banatzeko.



## 8. Zer erabilera-motatarako ez da behar baimenik?

### Erabilera pribatua

Obra baten zenbait kopia egin daitezke erabilera pribaturako, hau da, erabilera pertsonalerako. Kopia pribatua eskubideen titularrei ordaintzen zaie, kopia pribatuagatiko konpentsazio gisa. Ikastegi batean egiten diren kopiak ez dira erabilera pribatukoak, legean aurreikusitakoarekin bat. Horregatik, obra erabili ahal izateko, oro har, baimena behar da. Ez dago baimenduta programa informatikoak eta formatu digitaleko datu-baseak erabiltzea, ezta erabilera pribaturako ere.

### Aipuak

Obra batetik zuzeneko aipuak har daitezke beste obra batean sartzeko, betiere zati batera mugatuta eta erabilera horrek irakaskuntza- edo ikerketa-xedea duenean, aipu, analisi, komentario edo iritzi kritiko gisa. Obra bat aipatzen denean, haren eta egilearen izena adierazi behar dira.

### Komunikazio publikoa irakaskuntzan

Oro har, irakaskuntzan obra bat publikoki komunikatzeko, eskubideen titularraren edo hura ordezkatzeko duen kudeaketa-erakundearen baimena behar da; adibidez, ikasgelan filmak, musika eta abar jartzeko.

## 9. Ikastegiaren baimenak

Ikastegientzako eskuragarri dauden obren zenbait lizentzia.

Egileak bere obra erabiltzea baimendu dezake, adibidez, Creative Commons lizentzia batekin edo antzeko lizentzia ireki batekin. Material horiek lizentzian ezarritako baldintzen arabera erabili daitezke.



Egile-eskubideei eta ikastegien lizentziei buruzko informazio gehiago lortzeko, bisitatu Egile Eskubidearen Gela:  
[www.auladerechodeautor.org](http://www.auladerechodeautor.org)

Galdetu iezaguzu egile-  
eskubideen inguruan:  
[comunicacion@cedro.org](mailto:comunicacion@cedro.org)  
[www.cedro.org](http://www.cedro.org)

Egile Eskubidearen Gelan material ludikoa eta bestelako materialak ere badaude, egile-eskubideei buruz ikasi eta irakasteko, baita aholku didaktikoak, iturriak aipatzeko adibideak eta proiektuak prestatzeko laburpenak ere.

Ongi etorri Egile Eskubideen Ikasgelara!